

HITZAURREA

DOI: 10.1387/lan-harremanak.16088

Gaur egun, ezin ukatuzkoa da enpresa transnazionalak eragin handia dutela gure bizitzako alderdi guztietan, merkatuetara mugatutako espazio ekonomikoan ez ezik, baita eremu politikoan, juridikoan eta kulturaleran ere; hortaz, funtsezko eragileak dira gizarte globalaren egungo eredu hegemonikoa ulertzeko. Ildo horretan, eredu horren izaerazko parametroak korporazio handietatik haragokoak badira ere, haiek ulertzeko kontuan hartu behar dira korporazio horiek *status quo*ari ematen dioten bultzada eta harekin duten harreman estua. Azken batean, botere korporatiboak beharrezko baldintza da —baina ez nahikoa— egungo sisteman.

Bestalde, ezin dugu ukatu sistema hori krisi sakon batean murgilduta dagoela. Krisi horretan, askotariko alderdiek eragiten diote elkarri, eta, egungo ereduak gero eta ugariagoak diren mota orotako desparekotasunak murrizteko gaitasunik ez duela agerian uzteaz gain, krisiak gordintasun osoz erakusten du sistemak ezintasunak dituela bere burua berregiteko eta, are okerrago, bizitzaren beraren iraunkortasuna ahalbidetzeko; horren adibide garbiak dira egungo tesuinguru klimatikoa eta energetikoa.

Hortaz, krisiak, sistemak eta enpresa transnazionalak erantzukizun handia dute gizadiaren eta planetaren une kritiko honetan; horregatik konpromisoa, auzardia eta borondatea behar ditugu eredu hegemonikoaren aurkako oinarrien bidez egoera horri aurre egin diezaioketen alternatibak indartzeko eta eraikitzeko.

Espiritu horixe erabili dugu, hain zuzen, *Lan Harremanak* aldizkariaren zenbaki hau koordinatzeko. Hala bada, erronka horri heldu diogu, bi helburu lortzeko asmoz. Alde batetik, aniztasunetik abiatuta botere korporatiboari eta horrek sustatu eta babesten duen sistemari aurre egiten dioten ekimenak nabarmendu nahi ditugu. Ildo horretan, eta enpresa transnazionalen presentzia erabatekoa gorabehera, garrantzitsua da gogora ekartzea gaur egun erresistentzia egiteko eta proposamenak aurkezteko abian jartzen ari diren askotariko esperientziak. Horiek guztiek bizitza eredu berriak eraikitzeko gaitasunaren gaineko itxaropena pizten dute. Beste alde batetik, gainera, helburu osagarri bat ere ezarri dugu; hots, gure ekarpena egitea esperientzia horiek hobetzen lagun lezake-

ten erreferentzia esparruak zehazteko eztabaida teorikori eta politikoari. Hala, honako premisa hau hartzen dugu abiapuntutzat: behar-beharrezkoa da teoria-praktika binomioa indartzea, egungo errealitate konplexua etengabe aztertuz, baita une eta egoera bakoitzean prozesu emantzipatzaileak definitzen dituzten gako estrategikoei buruzko gogoeta kritikoa eginez ere.

Hain zuzen ere, gako horietako batzuk toki nabarmena dute aurkezten ari garen zenbaki honetan. Lehenik, apustua egitea agenda inklusiboen alde, hainbat begirada elkartzuz eta bateratuz alternatibak proposatzen dituzten agenden alde, alegia; bigarrenik, erabakitasunez jokatzeko proposamen horiek gehiengo sozialek eraiki ditzaten gehiengo sozialentzat, prozesu demokratikoak eta kontakizun nagusiaren bestelakoak eraikitzeko prozesuak erabiliz; hirugarrenik, lehen-tasuna ematea gertukoari, lurraldeari, betiere eremu globalarekin elkartuta; laugarrenik, azpimarratzea trantsizio kontzeptua oso garrantzitsua dela prozesu estrategiko oro ulertzeko formula gisa; eta azkenik, onartzea gaitasun emantzipatzailea duten eragile anitz daudela, botere korporatiboaren aurrean beste aukera batzuk proposa ditzaketenak, baita erantzunkidetasun logikak aplikatuta ere.

Hortaz, zenbaki honetan botere korporatiboarekiko erresistentziak eta alternatibak aztertzen saiatu gara, eta, aldi berean, haiek sendotu nahi izan ditugu, ekarpen batzuk eginez logika emantzipatzaileek egungo testuinguru konplexu eta zalantzazkoan dituzten erronkei buruzko eztabaida teoriko-politikoari. Era berean, erronka horiei aurre egin diegu, agendak, espazioak, denborak eta subjektuak barne hartzea iradokitzen duten hainbat gako abiapuntutzat hartuta.

Premisa horietatik abiatuta, Gonzalo Fernándezen artikulua bat da monografikoko lehena. Bertan, botere korporatiboarenak ez diren logikak eta prozesuak indartzeko erreferentziatzeko esparru teoriko-politiko bat eskaintzen du, eta hortik hainbat oinarri, indar-ideia eta gako ateratzen dira, haren eragina indartu nahi dutenak dagoeneko abian diren esperientzien ikaskuntzetatik. Jarraian, Alfonso Duboisen gogoeta egiten du gaur egun alternatibak proposatzeak berekin dakarren konplexutasunari buruz, eta azpimarratzen du garrantzitsua dela hainbat agenda, helburu eta proposamen bateratuko dituen koordinaziozko diskurtsoa ez ezik komunikaziozko diskurtsoa ere sortzea, horrek ahalbidetuko baitu gehiengo sozialengana iristea eta zibilizazioaren kontakizun hegemonikoari min ematea. Pablo Martínez-Osések eta Ignacio Martínezek 2030erako Garapen Iraunkorreko Agenda berriari buruzko balantze kritiko bat egiten dute. Agenda horrek, batetik, pobrezia eztabaida globala iraunkortasunera hedatzen du erantzunkidetasunaren logikatik abiatuta, baina bestetik ez du inolako asmorik botere asimetria ikaragarriak ezertan aldatzeko —botere korporatiboa elementu indartsu gisa nabarmentzen du—, ezta indarrean den garapen eredu aldatzeko ere. Lehenengo hiru artikulua horiek aldizkariko gainerako irakurgetatik hartzeko esparru orokorra aurkezten dute: testuinguru globala zein den zehazten dute, testuinguru horretan alternatibak sortzeko zer erronka dauden aipatzen dute eta,

azken batean, botere korporatiboaren aurrean prozesu emantzipatzaileak eraikitzeko erreferente teoriko-politikoak zein izan daitezkeen azaltzen dute.

Jarraian datozen lau artikuluek ekarpenak egin nahi dizkiote enpresa transnazionalen eta haien jardute sistemaren aurrean administrazio publikoek eragile emantzipatzaile gisa eta alternatibak eraikitzeko eragile gisa dituzten mugen eta ahalmenen gaineko eztabaidari. Ildo horretan, Magdalena Leónek Ekuadorreko gobernuak azken hamarkadan «herritarren iraultza» deritzonaren baitan sustatu dituen aurrerapenak azaltzen ditu. Marco Gandarillasek, Latinoamerikan gobernu aurrerakoiak betetzen ari diren eginkizunari buruzko bestelako ikuspegi bat hartuta, modu kritikoa aztertzen du Boliviako gobernuaren eta korporazio handien arteko harremana, eta indarrean den praktika gainditzeko hainbat proposamen aurkezten ditu, praktika horrek, bere iritziz, areagotu egiten baitu enpresa transnazionalen mende dagoen nekazaritza esportatzaileko eredu. Gero, estatuari buruzko gogoeta horiek tokian-tokian aplikatzen dira, lurraldean; hortik, Laura Gómezek politika publikoetatik abiatuta emantzipazio prozesuak —eta, hortaz, feministak— abiarazteko gaitasunak aztertzen ditu, azken legealdian Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun Saileko zuzendari gisa izandako esperientzian oinarrituta. Era berean, Silvia Pirisek, elikadura burujabetzaren aldeko askotariko ekimen publikoen azterketa batetik abiatuta, hainbat ondorio aurkezten ditu ildo horretan tokiko espazioetatik gauza daitezkeen praktikei buruz.

Azkenik, hirugarren bloke batean jasota daude gizarte mugimendu eta erakundeetatik enpresa transnazionaleri aurre egiteko sustatu izan diren proposamen alternatiboei buruzko gogoeta batzuk. Korporazio handiek gizar-tearen aurrean beren burua arazoaren erantzuletzat aurkeztu beharrean irtenbidetzat aurkezteko erabili dituzten estrategietatik abiatuta, Pedro Ramirok hainbat proposamen aztertzen ditu, *merkatuen* boterearen kontrol mekanismoak ezartzeko beharraren eta trantsizio post-kapitalistan aurrera egiteko proposamenak eraikitzeko premia-artearen artean kokatutakoak. Bestalde, Julia Martík gizarte eragileek mota horretako prozesuak aurreirudikatu, sustatu eta gauzatzeko zer muga eta ahalmen dituzten aztertzen du, eta interes bereziko zenbait ekimen nabarmentzen ditu. Jarraian, Juan Hernández Zubizarretak *Enpresa transnazionalak kontrolatzeko herrien nazioarteko ituna* egiteko prozesu kolektiboa azaltzen du, botere politikoaren eta botere korporatiboaren arteko liskarra planteatzeko tresna estrategikoaren adibide gisa. Amaitzeko, Juan Carlos Pérez-Mendigurennek eta Enekoitz Etxezarretak ekonomia solidarioko erakunde eta enpresek egungo ekonomia eredu hegemonikoak ez diren beste batzuk eraikitzeko izaten dituzten erronkei eta kontraesanei buruzko gogoeta egiten dute.

Hortaz, botere korporatiboari aurre egiten dioten gogoeta eta ekimen batzuen argazki orokor bat egin nahi da, agenden (feminismoa, ekonomia soli-

darioa, elikadura burujabetza, antikapitalismoa), espazioen (tokikoa, estatukoa, globala) eta subjektuen (administrazio publikoak, gizarte mugimendu eta erakundeak) aniztasunaren onespentetik abiatuta. Aurkezpen honetan, orain arte egindakoa aitortzen da, eta egiteko dagoenari heltzeko borondatea eta konpromisoa ageri dira. Ildo horretan, *Lan Harremanak* aldizkariaren zenbaki hau Paz con Dignidad erakundearen baitako Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiak (OMAL) dinamizatu duen ikerketa prozesu baten zati da. Behatoki horren helburua, hain zuzen ere, botere korporatiboa modu kritikoan aztertzen jarraitzea eta bestelako aukerak eskaintzea da.

Espero dugu monografikoa interesgarria izatea eta ekarpen xume baina zorrotza egitea guztion artean urgentziaz eraiki beharreko bizitza eredu alternati-
boei heltzeko beharraren gaineko eztabaidari.

Gonzalo FERNÁNDEZ eta Pedro RAMIRO
(koord.)